

Euskal AEko industria-jarduera % 4,9 hazi zen 2022ko urrian


2022ko lehen hamar hilabeteetan % 6,1eko hazkunde metatua izan da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko baldintza homogeneousan, Euskal AEko industria-produkzioa, 2022ko urrian, 2021eko hil berean izandakoa baino % 4,9 handiagoa izan da.

Urria eta aurreko hilabetea, 2022ko iraila, alderatuta, Euskal AEko industria-jarduera % 2,5 hazi da, urtaro-ondorioak behin zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko urriko indizearen bilakaerak, 2021eko urriaren aldean, portaera positiboa izan du industria-sektore handi guztietan: *Ekipo-ondasunak*, non motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea sartzen diren, % 5,7 igo dira.

Hazkunde bera izan dute *Kontsumo-ondasunek* sektorearen guztirakoan (% 5,7), ezen *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* produkzioa % 6,3 igo da, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* produkzioa, era berean, % 3,8. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean daude, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* epigrafean honako hauek daude: elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, eta jantziak egitea.

Energiaren sektorean, non energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea dauden, % 4,7 hazi da produkzio-indizea; *Bitarteko ondasunak*, berriz, % 4 igo dira urte arteko terminoetan. Sektore horretan honako jarduera hauek sartzen dira, besteak beste: metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak	
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1	
INDIZE OROKORRA				
Euskal AE	4,9	6,1	2,5	2,5
Araba/Álava	7,5	6,3	0,2	0,2
Bizkaia	3,8	7,5	1,5	1,5
Gipuzkoa	4,4	4,8	5,0	5,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	5,7	4,8	2,2	2,2
Kontsumoondasun iraunkorrak	3,8	-1,3	9,9	9,9
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	6,3	6,4	0,4	0,4
Ekipo-ondasunak	5,7	9,9	1,5	1,5
Bitarteko ondasunak	4,0	2,0	2,8	2,8
Energia	4,7	14,1	1,4	1,4

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Abenduaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten zortzi sektoreetako batek ere ez du beherakadarik izan bere ekoizpenean; hauek izan dira urte arteko hazkunderik handiena izan dutenak 2022ko urrian: *Makineria eta ekipoa* (% 10,5), *Garraio-materiala* (% 10,3) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 6,7). *Material eta ekipo elektrikoa* (% 2,1) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 1,8) sektoreek izan dituzte hazkunderik apalenak.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Urria 2022

   Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	3,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,8
Kautxua eta plastikoak	4,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	3,5
Materiala eta tresna elektrikoak	2,1
Makineria eta tresneria	10,5
Garraio-materiala	10,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	6,7

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Abenduaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da 2022ko urrian hiru lurraldeetan: Araban % 7,5 hazi da industria-jarduera, Gipuzkoan % 4,4 eta Bizkaian % 3,8.

2022KO LEHENBIZIKO HAMAR HILETAKO BALANTZEA

2022ko urtariletik urrira bitartean, industria-sektore osoan metatutako hazkundera % 6,1ekoa izan da. Bilakaera positibo hori hala *Energiaren* nola *Ekipo-ondasunen* portaera onaren ondorio da; izan ere, aurtan % 14,1eko eta % 9,9ko hazkunde metatuak izan dira, hurrenez hurren.

Lurraldeka, hiru lurraldeetan nabaritzen dira tasa metatu positiboak: % 7,5ekoa Bizkaian, % 6,3koa Araban eta % 4,8koa Gipuzkoan.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **% 90,95eko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62